



HEZKUNTZA SAILA  
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza  
Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Viceconsejería de Administración y Servicios  
Dirección de Gestión de Personal

**BEHIN-BEHINEKO EBAZPENA, 2024KO MAIATZAREN 27KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILERIAREN KUDEAKETAKO ZUZENDARIARENA, 2024KO ABUZTUAREN 31N 59 ETA 60 URTE EDO GEHIAGO DITUZTEN LAN-LEGEPEKO IRAKASLE FINKOAK ETA HEZITZAILE FINKOAK ADINAGATIKO ESKOLA-ORDUAK MURRIZTEKO DEIALDIA EBAZTEN DUENA**

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2024ko apirilaren 8ko Ebazpenaren bidez, 2024/2025 ikasturterako adinagatiko eskola-orduak murrizteko eskaera-prozedura ezarri zen.

Aipatutako ebazpenaren bigarren eta hirugarren atalen arabera, hauek dira asteko bi eskola-orduren murrizketa emateko baldintzak:

- *Lan-kontratudun irakasle eta hezitzaile finkoak, mugagabe ez finkoak edo bitarteko langile hutsak (hezkuntza-laguntzako espezialistak, fisioterapeutak, zeinu-hizkuntzako interpreteak eta terapeuta okupazionalak), baldin eta 59 urte badituzte (60 urte bete gabe) abuztuaren 31n.*
- *Lan-kontratudun irakasle eta hezitzaile finkoak, mugagabe ez finkoak edo bitarteko langile hutsak (Hezkuntza-Laguntzako Espezialistak, Fisioterapeutak, Zeinu-hizkuntzako Interpreteak eta Terapeuta Okupazionalak), baldin eta abuztuaren 31n 60 urte edo gehiago badituzte eta erretiro partziala hartzeko baldintzak betetzen ez badituzte.*
- *2024/25 ikasturterako irakasle finkoek, mugagabe ez-finkoek edo lanpostu hutsetan dauden bitarteko irakasleek gehieneko irakastorduak esleituta izatea (hau da, atal honetako c eta d baldintzak betetzea), eta hezkuntza-langile finkoek (hezkuntza-laguntzako espezialistak, fisioterapeutak, zein-mintzairaren interpreteak eta terapeuta okupazionalak) zuzeneko arretako gehieneko orduak esleituta izatea.*

**RESOLUCIÓN PROVISIONAL DE 27 DE MAYO DE 2024 DE LA DIRECTORA DE GESTIÓN DE PERSONAL DEL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN POR LA QUE SE RESUELVE LA CONVOCATORIA DE REDUCCIÓN DE HORAS LECTIVAS POR RAZÓN DE EDAD PARA EL PERSONAL LABORAL DOCENTE FIJO Y EDUCATIVO FIJO DE 59 Y 60 O MÁS AÑOS DE EDAD A FECHA DE 31 DE AGOSTO DE 2024**

Mediante Resolución de 8 de abril de 2024, de la Directora de Gestión de Personal del Departamento de Educación, se estableció el procedimiento de solicitud de reducción de horas lectivas por razón de edad, para el curso 2024/2025.

Conforme a los apartados segundo y tercero de la citada resolución, los requisitos para la concesión de la reducción de dos horas lectivas semanales son:

- *Personal laboral docente y educativo fijo, indefinido no fijo o interino en vacante (Especialistas de Apoyo Educativo, Fisioterapeutas, Intérpretes de Lenguaje de Signos y Terapeutas Ocupacionales) que tenga 59 años de edad (no cumplidos 60 años) a fecha 31 de agosto.*
- *Personal laboral docente y educativo fijo, indefinido no fijo o interino en vacante (Especialistas de Apoyo Educativo, Fisioterapeutas, Intérpretes de Lenguaje de Signos y Terapeutas Ocupacionales) que tenga 60 o más años cumplidos a fecha 31 de agosto, y no reúna los requisitos para acceder a la jubilación parcial.*
- *Que para el curso 2024/25 el personal docente fijo, indefinido no fijo o interino en vacante tenga asignada la jornada lectiva máxima (entendiéndose por tal el cumplimiento de los requisitos c y d de este apartado), y el personal educativo fijo (Especialistas de Apoyo Educativo, Fisioterapeutas, Intérprete de Lenguaje de Signos y Terapeutas Ocupacionales) tenga asignada el máximo de horas de atención directa.*



## HEZKUNTZA SAILA

Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza  
Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Viceconsejería de Administración y Servicios  
Dirección de Gestión de Personal

Hezkuntza Laguntzako espezialisten kasuan, zuzeneko arretako 30 ordua iristen ez direnen eskaerak ere onartuko dira, baina heren bateko murrizketa 30 orduko zuzeneko arretaren gainean kalkulatu da, hau da, 20 orduko zuzeneko arreta egin beharko dute.

- Erretiro partzialeko egoeran ez egotea edo egoera horri ez heltzea 2024/25 ikasturtean.
- Deialdi espezifiko bidez zerbitzu-eginkizunik edo lanaldi-murrizketarik ez izatea 2024/25 ikasturterako.
- 2024/25 ikasturtean beste jardura batzuetan aritzeagatik (proiektuak, EGA/AKA, jantokia, zuzendaritzakarguak ...) eta osasun-arrazoiengatik eskola-orduen murrizketarik ez izatea.
- Bigarren jardura batean zerbitzurik ez ematea.
- Ezin izatea erretiro arrunta eskuratu egungo kotizazio-oinarriak kontuan hartuta lor lezakeen gehieneko pentsioarekin, Gizarte Segurantzaren araudiaren arabera.
- Murrizketa-orduak ikastetxeko zuzendaritzaren eskura jartzea, betiere ikastetxean eman beharreko orduak izanik.
- Que no estén en situación de jubilación parcial o que no vayan a acogerse a la misma durante el curso escolar 2024/25.
- Que no tengan concedida una comisión de servicios por convocatoria específica ni una reducción de jornada para el curso 2024/25.
- Que no tengan reducción de horas lectivas por dedicación a otras actividades (proyectos, EGA/AKA, comedor, cargos directivos...) ni por razones de salud, para el curso escolar 2024/25.
- Que no presten servicios en una segunda actividad.
- Que no pueda acceder a la jubilación ordinaria con la pensión máxima que pudiera alcanzar teniendo en cuenta sus actuales bases de cotización conforme a la normativa de Seguridad Social.
- Que las horas de reducción se pongan a disposición de la dirección del centro, siendo, en todo caso, horas de permanencia en el centro.

2024/25 ikasturterako irakastorduen/zuzeneko arretaren murrizketa hori baimentzeko, baldintzak ikasturte osoan bete beharko dira (2024ko irailaren 1etik 2025ko abuztuaren 31ra).

Ebazpen horren zazpigarren atalean zehazten zen "Eskabideak aztertu ondoren, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren behin-behineko ebazpena argitaratuko da".

La autorización de esta reducción de horas lectivas/atención directa para el curso 2024/25 quedará condicionada al cumplimiento de los requisitos durante todo el curso académico (de 1 de septiembre 2024 a 31 de agosto de 2025).

En el apartado séptimo de dicha resolución se determinaba que "Una vez analizadas las solicitudes se procederá a la publicación de la Resolución Provisional de la Directora de Gestión de Personal".



Kontuan hartuta Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoa;

Considerando lo dispuesto en el artículo 10 del Decreto 71/2021, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Educación;

## EBAZTEN DUT

## RESUELVO

**LEHENENGOA.-** Abuztuaren 31n 59 urte (60 urte bete gabe) dituzten eskatzaileei buruzko ebazpen honen I. eranskinean agertzen diren pertsonen irakastorduak murriztea 2024/2025 ikasturterako: asteen bi eskola-ordu irakasleentzat eta asteen bi zuzeneko arreta-ordu hezitzaileentzat.

**PRIMERO.-** Conceder a las personas que figuran en el Anexo I de la presente resolución, relativo a los solicitantes que tengan 59 años de edad (no cumplidos 60 años) a fecha de 31 de agosto, una reducción de horas lectivas para el curso 2024/2025 consistente en dos horas lectivas semanales para el personal docente y en dos horas de atención directa semanales para el personal educativo.

**BIGARRENA.-** Ebazpen honen II. eranskinean agertzen diren pertsonen, abuztuaren 31n 60 urte edo gehiago beteta dituzten eskatzaileei buruzkoa, irakastorduen murrizketa bat ematea 2024/2025 ikasturterako. Murrizketa hori irakastorduen herena izango da irakasleentzat, eta zuzeneko arretako orduen herena hezkuntzako langileentzat (Hezkuntza-Laguntzako Espezialistak, Fisioterapeutak, Zeinu-hizkuntzako Interpreteak eta Terapeuta Okupazionalak).

**SEGUNDO.-** Conceder a las personas que figuran en el Anexo II de la presente resolución, relativo a los solicitantes que tengan 60 o más años de edad cumplidos a fecha de 31 de agosto, una reducción de horas lectivas para el curso 2024/2025 consistente en un tercio de las horas lectivas para el personal docente y en un tercio de las horas de atención directa para el personal educativo (Especialistas de Apoyo Educativo, Fisioterapeutas, Intérpretes de Lenguaje de Signos y Terapeutas Ocupacionales).

**HIRUGARRENA.-** Ikasturtea hasteko unean, I. eta II. eranskinetan agertzen diren pertsonen, baldin eta 2024/2025 ikasturterako irakastorduak edo zuzeneko arretako orduak murrizten bazaizkie, lehenengo eta bigarren ebazpenetan adierazitakoaren arabera, ikastetxeko zuzendaritzaren aurrean egiaztatu beharko dute deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztela.

**TERCERO.-** En el momento del comienzo del curso escolar, las personas que figuran en el los Anexos I y II a las que se concede la reducción de horas lectivas u horas de atención directa para el curso 2024/2025, en los términos expuestos en los resueltos primero y segundo, deberán acreditar ante la Dirección del Centro el cumplimiento de la totalidad de los requisitos fijados en la convocatoria.

**LAUGARRENA.-** Ebazpen honen III. eranskinean azaltzen diren pertsonen irakastorduak eta zuzeneko arretako orduak murrizteko eskaerak ezestea.

**CUARTO.-** Desestimar las solicitudes de reducción de horas lectivas y horas de atención directa de las personas que figuran en el Anexo III de la presente resolución.

**BOSTGARRENA.-** Deialdi honen deialdia egiten duen 2024ko apirilaren 8ko Ebazpenean xedatutakoaren arabera, I., II. eta III. eranskinetan argitaratutako behin-behineko zerrenden aurka interesdunek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute 2024ko maiatzaren 28tik ekainaren 2ra bitartean, biak barne. Behin-behineko ebazpen honen aurkako

**QUINTO.-** Con arreglo a lo dispuesto en la Resolución de 8 de abril de 2024 por la que se convoca la presente convocatoria, contra los listados provisionales publicados en los Anexos I, II y III los interesados podrán presentar reclamación desde el día 28 de mayo hasta el día 2 de junio de 2024, ambos incluidos. Tales reclamaciones contra la presente Resolución provisional se realizarán mediante el



erreklamazio horiek Hezigunean horretarako prestatutako formularioaren bidez egingo dira.

formulario habilitado para ello en el entorno de *Hezigunea*.

**ZAZPIGARRENA.-** Ezesteko arrazoia zuzengarria duten interesdunek nahitaezko agiriak aurkeztu edo zuzendu beharko dituzte. Horretarako epea 2024ko maiatzaren 28tik ekainaren 2ra artekoa izango da, biak barne, eta adierazitako epean zuzenketa egiten ez badute, eskaeran atzera egin dutela ulertuko da. Zuzenketa horiek *Hezigunean* horretarako prestatutako formularioaren bidez egingo dira.

**SÉPTIMO.-** Los interesados cuyo motivo de desestimación sea subsanable deberán proceder a subsanar o a aportar los documentos preceptivos. El plazo para ello queda fijado desde día 28 de mayo hasta el día 2 de junio de 2024, ambos incluidos, teniéndoles por desistidos de su petición si no procedieran a la subsanación en el plazo indicado. Tales subsanaciones se realizarán mediante el formulario habilitado para ello en el entorno de *Hezigunea*.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko maiatzaren 27an  
En Vitoria-Gasteiz, a 27 de mayo de 2024

**LA DIRECTORA DE GESTIÓN DE PERSONAL  
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

**Fdo. BLANCA GUERRERO OCEJO**